Imprimir formulario

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

# 2019ko azaroaren 10eko Gorte Nagusietarako hauteskundeak.

**Garrantzitsua:** Zuk botoa, 2019ko apirilaren 28ko Gorte nagusietarako hauteskundeetarako eskatu bazenuen, eskabide horrek 2919ko azaroaren 10eko hauteskundeetarako ere balio du. Ez duzu berriz eskatu behar.

Ez badaukazu 2019ko apirilaren 28ko Gorte Nagusietarako hauteskundeetarako eskaerarik, beranduenez, 2019ko urriaren 19an eskatu beharko duzu, honako aukeraren baten bidez:

1. Internet bidez, ziurtagiri digitalaz. "CERA botorako eskaria" izapidean sartu beharko duzu, helbide honetan: https://sede.ine.gob.es/votoCorreoCera/, zure Nortasun Agiri Nazionalera loturiko onarturiko ziurtagiri elektroniko baten bidez.

2. Internet bidez zure izen-ematearen helbidera postaz ofizioz bidalitako ITG izapide telematikorako gakoaz. "CERA botorako eskaria" izapidean sartu beharko duzu, helbide honetan: https://sede.ine.gob.es/votoCorreoCera/, CTT-az baliatuta; agertzen diren jarraibideak jarraitu beharko dira eta honako dokumentu hauetako BATEN irudi-fitxategia erantsi:

- Espainiako Nortasun Agiri Nazionala (NAN).
- Espainiako agintaritzak luzatutako pasaportea.
- Espainiako nazionalitate ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena).
- Kontsuletxeko Matrikula Erregistroko inskripzioaren Ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena).

3. Posta arruntaz edo faxez, Espainian inskribatuta zauden erroldari dagokion probintziaren Hautesle Erroldaren Bulegoaren Ordezkaritza Probintzialari, deialdiaren dataren aurreko urtean inskripzioaren udalerrian gertatutako aldaketak kontuan hartu gabe. Botorako eskaria eta data bete behar duzu, sinatu eta honako dokumentu hauetako BAT erantsi:

- Espainiako Nortasun Agiri Nazionalaren kopia (NAN).
- Espainiako agintaritzak luzatutako pasaportearen kopia.
- Espainiako nazionalitate ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena).
- Kontsuletxeko Matrikula Erregistroko inskripzioaren Ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena).

Hautesle Errolda Bulegoaren Probintzia Ordezkaritzak botoa emateko dokumentazioa, jarraibide orriarekin batera, beranduenez urriaren 21ean edo, hautesgaiak aurkatuz gero, urriaren 29an bidaliko dizu.

Bozkatzeko prozedurari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, jo ezazu zure Enbaxada edo Kontsuletxera, edo bestela, ondoko webguneetara: www.infoelectoral.interior.es, www.exteriores.gob.es eta www.ine.es

## ATZERRIAN BIZI DIREN HAUTESLEEN BOTORAKO ESKARIA (CERA)

(INPRIMAKIAREN ATAL GUZTIAK LETRA LARRIZ BETE)

lehen abizena

bigarren abizena

izena

Jaioteguna: eguna hilabetea urtea

Identifikatzailea: ☐ NAN ☐ Pasaportea

Zenbakia

egoitza-herrialdea

hautesle inskripzioaren probintzia

hautesle inskripzioaren udalerria

Eskari honekin batera honako dokumentua aurkezten dut, “X” batez markatuta:

- ☐ Espainiako Nortasun Agiri Nazionalaren kopia (NAN)
- ☐ Espainiako agintaritzak luzatutako pasaportearen kopia
- ☐ Espainiako nazionalitatearen ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena)
- ☐ Kontsuletxeko Matrikula Erregistroan inskribatuta zaudela egiaztatzen duen Ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena).

**Hauteslearekin harremanetan jartzeko datuak (AUKERAZKOA):**

........................................................ telefonoa

........................................................................................................................ posta elektronikoa

..................................-(e)n, ..................................(e)ko .................................... aren ....................................a

Interesdunaren sinadura

Botorako eskaria posta arruntaz edo faxez bidali:

................................................................................................HAUTESLE ERROLDAREN BULEGOKO ORDEZKARITZA PROBINTZIALERA